

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

MERKATARITZA KUDEAKETAKO PLATAFORMA ALDATZEAN HAINBAT APLIKAZIOREN ANALISI FUNTZIONALA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKO

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua analisi funtzionala egiteko laguntza-zerbitzua ematea da; Partzuergoaren egungo merkataritza-datu basearekin (SIGA) harremanetan diren aplikazioen unibertsoaren eta Billing One (BONE) ordezkaturiko duen aplikazio berriari dagozkion aplikazioen arteko aldaketa behar bezala egokitu edo kudeatu ahal izateko.

Zerbitzua eman behar den arloaren eremu funtzionala teleirakurketaren kudeaketarekin lotutako prozesuena da. Kontagailurik egokiena instalatzeko lan-agindua ematekin (instalatu behar den edo behar ez den irratiz bidezko moduluarekin zerikusia duena), bezero bakoitzaren 24 ordu-irakurketak eskura jartzearino, eta etorkizuneko BONE tresnak horiek eskuratu kontsumoak kalkulatzeko eta dagozkion tasen likidazioa egiteko.

Datorren urtarilaren 1ean teleirakurketaren esparruan BONEk behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko (zerrendak ez du izaera mugatzailerik), honako prozesu hauetan eman behar da laguntza:

- Kontagailu jakin bat instalatzeko lan-agindua behar bezala sortu eta behar den instalazio zerbitzuari esleitzea, kontagailuaren neurrien eta hura instalatu behar den udalerriaren arabera; horrek zehazten bait ditu instalatu egin behar den edo ez irradi moduluaren ezaugarriak.
- Instalazio-agindu bakoitzetik (agindua bete ondoren) lortzen den informazioa ezagutzea eta kontrolatzea BONEra sartu aurretik, eta haren koherentzia bermatzea ere; bai kontagailuari berari dagokionez (instalazio-datak, serie-zenbakian sartutako fabrikazio-urtea, marka, kalibrea...), bai hari atxikitako irradi-moduluari dagokionez (serie-zenbakiarekin).
- Komunikazioen hornitzaileak tresna horiei (kontagailua ta irradi.modulua) bere komunikazio-sarean alta emateko aukera izan dezan, bidali egin behar zaion informazioa eta informazio hori bidaltzeko modua edo bidea.
- Komunikazioen hornitzaileak bidaltzen dituen ordu-irakurketei (eta beste batzuei, hala nola alarma potentzialei) buruzko informazioa gure datubasean sartu eta dagokion bezeroari behar bezala esleitzea.

Adjudikaziodunak laguntza eman beharko die SIGA/BONEren erabiltzaileei deskribatutako eragiketen funtzionamendu egokiari buruzko test-lanak egiten, sor daitezkeen akatsak eta desadostasunak minimizatzen laguntzeko.

Era berean, laguntza eman beharko die teleirakurketa-sistema osoaren funtzionamendu egokian inplikaturik dauden horniduren hornitzaileei (kontagailuak, irrati-moduluak) edo zerbitzuen hornitzaileei (kontagailuen instalazioa, irakurketa-hargunea...), beren aplikazioak eta tresnak egokitu behar badituzte SIGAren ordezkari BONE ezartzearen ondoriozko aldatetara.

2.- ZERBITZUA NOLA EMAN

Hau litzateke, hasiera batean behintzat, zerbitzua nola antolatu eta eman behar den oinarriko azalpena; edozein unetan aldatu ahal izango delarik, bai esleipendunak proposatuta, bai BBUPk proposatuta, zerbitzuaren eraginkortasuna handitzeko:

- Lana astelehenetik ostiralera egingo da.
- Laguntza teknikoa egunean 5 orduz erabili nahi da (egunean 5 orduz). Hau da, astean 25 ordu.
- Printzipioz, zerbitzua 9:00etatik 14:00etara eman behar da (betiere BBUPren beharretara eta adjudikaziodunak izan ditzakeen aukeretara egokitzeko moduan), baina hurrengo paragrafoan azaltzen den moduan aldatu ahal izango delarik.

Kontuan hartuta kontratuaren xedea eta eremua definitzen duten lanak jardun beharreko programa edo proiektuei dagokienez, bakoitzak zenbat ordu emango dituen eta horietako zeini lehentasunez ekitea komeni den planifikatu behar dela, espero diren emaitzak behar bezala betetzeko eta lortzeko, astero planifikatuko da asteko 25 orduak nola antolatuko diren (egun bakoitzean zenbat ordu emango diren aurreikusi).

- Hilabete bakoitza amaitzean, benetan emandako asistentzia-orduen fakturazioa egingo da.